

Ahozko adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	IRAUPENA
2	30 puntu (%20)	14 minutu

HELBURUAK

Bakarrizketa

- ♦ Gai orokorrei buruzko ideia eta iritziak argi eta zehatz adieraztea, ikuspuntuak azalduz, aldeko zein aurkako arrazoiak emanez, aukera ezberdinen artean abantailak eta desabantailak adieraziz, argumentuak argitasunez garatuz eta alde gehigarriekin eta adibideekin zabalduz edo defendatuz.
- ♦ Diskurtsoa egituratzea, datuak malgutasunez lotzea eta koherentziari eustea.
- ♦ Denbora-, espazio- edo logika-loturak eta iritzia argi uztea.
- ♦ Esperientzia, amets, itxaropen eta desira, gertakizunak – benetakoak edo asmatutakoak – deskribatzea, sentimenduak eta erantzunak azalduz.

Elkarreragina:

- ♦ Elkarrizketa, bilera, ika-mika eta eztabaida formaletan eta lagunartekoetan parte hartu, solaskide batekin edo gehiagorekin.
- ♦ Norberaren ideiak, iritziak eta proiektuak zehatz aditzera ematea eta defendatzea, modu eraginkorrean aurkeztuz eta justifikatuz.
- ♦ Gai ugari buruzko informazioa, argudioak eta aholkuak trukitzea.
- ♦ Azalpenak eman eta zehaztasun jakin batzuei buruz argibideak eskatzea.
- ♦ Galderak erantzun eta solaskideen zalantzak argitzea.
- ♦ Informazioa eman eta eskatzea.
- ♦ Solasaldien bilakaeran laguntzea, solaskideekin kooperatuz.
- ♦ Modu egokian hitza hartzea, hitza ematea, parte hartzea eta amaitzea.
- ♦ Ulermen hutsuneak adieraztea eta solaskideek ulertu dutela egiaztatzea.
- ♦ Gertaerak, esperientziak, sentimenduak eta erreakzioak, ametsak, itxaropenak eta nahiak zehaztasunez deskribatzea.

- Ohiko eta ez hain ohiko transakzioetan eta gestioetan segurtasunez moldatzea.
- Hipotesiak eman eta erantzun.

TESTU MOTAK

Bakarrizketa: Beste azterketari bati edo batzuei emaniko azalpena.

Elkarreragina: Hizketaldia beste azterketari batekin edo batzuekin.

ARIKETAK

1. ataza: bakarrizketa

Azterketariak 150 eta 200 hitz arteko testua, argazkiak, irudi iruzkinduak ... jasoko dituzte. Horiek guztiek probarako proposatu den gaiari buruzkoak izango dira. Testu, argazki edota irudiekin batera informazioa emango zaio ikasleari. Azterketariak informazio horretaz balia daitezke ariketa gauzatzeko.

Azterketari bakoitzak proposatutako gaiaren gainean aritu beharko du, beste azterketariari bere ikuspuntua azalduz, informazioa gehituz, bere iritzia adieraziz.

Azterketariak 20 minutu izango du ataza hau eta bitartekotza ataleko 2. ariketa (ahozko bitartekotza) prestatzeko.

Denbora: azterketari bakoitzak 3 eta 4 minutu artean izango ditu bere azalpena gauzatzeko.

2. ataza: elkarreragina

Azterketariak elkarrekin hitz egingo dute, informazioa elkarri helaraziko diote eta nor bere iritzia adierazi beharko dio besteari. Arazo baten balizko zioak aztertuko dituzte; irtenbideak alderatuko dituzte eta hainbat alorren gaineko auziei buruzko informazioa trukatu dute.

Azterketariak galderak egin eta galderei erantzun beharko diete; hitza hartu eta solaskideari hitz egiten utzi beharko diote; hau da, solasaldia kontrolatzearekin lotura duten funtzio guztiak gauzatu beharko dituzte.

Azterketariak orri bat jasoko dute; proposatutako ariketa eta ariketa gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia azalduko zaie bertan.

Ez du denborarik izango ataza hau prestatzeko.

Ataza gauzatzeko denbora: 5 minutu.

Azterketak binaka egingo dira (salbuespenez, hiruak). Epaimahaiak hartuko ditu azterketa egiteko orduan jazo litekeen edozein gertakizunen gaineko erabakiak.

Bitartekotza

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	IRAUPENA
2	30 puntu (%20)	25 minutu (idatzizko bitartekotza ariketak) 4 minutu (ahozko bitartekotza ariketak)

*Bitartekotza atalak bi ariketa izango ditu. Ariketak ez dira saio berean egingo, bi saio ezberdinetan baizik. Saioetako batean, idatzizko bitartekotza ariketa egingo da idatzizko adierazpenari dagozkion ariketekin eta idatzizko zein ahozko ulermenei dagozkien ariketekin batera. Ahozko bitartekotza ariketa beste saio batean egingo da ahozko adierazpen ataleko ariketekin batera.

HELBURUAK

- ♦ Ahozko edo idatzizko testu zein irudietan azaltzen diren iritziak, jarrerak eta informazioa hautatzea, testuingurura egokitzea eta ahoz zein idatziz besteei helaraztea.
- ♦ Zenbait iturritako testu idatzietatik jasotako informazioa, argudio nagusiak eta alderdi garrantzitsuenak sintetizatzeko eta besteei ahoz zein idatziz helarazteko.
- ♦ Jasotako informazioaren gaineko ondorioak ateratzea.
- ♦ Ahozko testuetatik, besteentzako ohar idatziak hartzea, behar besteko zehaztasunez eta antolaketaz eta puntu eta alde garrantzitsuenak jasota.
- Solaskide bi edo gehiagoren arteko solasaldiak idatziz zein ahoz laburtzea.
- ♦ Filmetako eta antzerki obretako gertakarien trama eta sekuentzia idatziz zein ahoz laburtzea.
- ♦ Pasarte idatzien parafraasiak egitea.

ARIKETAK

1. ariketa: idatzizko bitartekotza

Hautagaiari 70-90 hitzeko idazlana egiteko eskatzen zaio. Idazlana bideratzeko, honako aukeretako bat eskainiko zaio:

- 1) Ahozko zein idatzizko testu bat edo gehiago emango zaio (idatzizkoa bada, gehienez 310 hitz izango ditu eta ahozkoa bada gehienez 2 minutukoa). Ematen zaion testuingurua kontuan hartuta, testua egokitu, laburtu, sintetizatu edo parafraseatu egingo du.
- 2) Irudi bat edo gehiago (grafikoa, kartela, iragarkia ...) emango zaio. Ematen zaion testuingurua kontuan hartuta, informazioa idatziz helaraziko du.

Ariketaren iraupena: 25 minutu.

2. ariketa: ahozko bitartekotza

Hautagaiari bi minutuko berbaldia egiteko eskatuko zaio. Hori bideratzeko, honako aukeretako bat eskainiko zaio:

- 1) Ahozko zein idatzizko testu bat edo gehiago emango zaio (idatzizkoa bada gehienez 200 hitz izango ditu eta ahozkoa bada gehienez 2 minutukoa). Ematen zaion testuingurua kontuan hartuta, testua egokitu, laburtu edo sintetizatu egingo du.
- 2) Irudi bat (grafikoa, kartela, iragarkia ...) edo gehiago emango zaio. Ematen zaion testuingurua kontuan hartuta, informazioa helaraziko du.

Azterketariak 20 minutu izango du ataza hau eta ahozko adierazpeneko bakarriketa ariketa prestatzeko.